

# DEBAGOIENA TALENT HOUSE

The place to grow

**2030**

**FoW - Lanaren Etorkizuna**



## DEBAGOIENA TALENT HOUSE: Proiektuaren esparrua

Debagoiena, bere enpresen, teknologia zentroyen eta unibertsitatearen ekosistemarekin, eraldaketa bizkorra izaten ari da, eta eraldaketa horrek ezinbestean eskatzen du barne talentua sortzeaz gain, hura erakarri eta lurraldearekin lotzea ere. Talentua hirietan metatzeko joera dagoen garai honetan, are erronka handiagoa da Debagoienarentzat talentua erakartzeko eta atxikitzeko gaitasun hori edukitzea.

Horrela, D2030 - Future of Work eta pareko esparruetan, ikasle, ikertzaile eta profesionalen profil berrietan azaltzen diren behar berriei buruz hausnartzeko aukera irekitzen da, eskualdetik erantzun bat koordinatzeko eta talentua erakartzeko lurralde inspiratzaile gisa kokatzeko gai izateko.

Talent House proiektuak lurraldean esku hartzen duten hainbat eragile gonbidatuko ditu, eta lantalde bat sortuko du, Debagoiena garapen pertsonal eta profesionalerako helmuga izan dadin baliabideak eta ideiak bideratzeko.





## LANTALDE SUSTATZAILEA:

Sektore anitzeko lankidetzak publiko-pribatua,  
Debagoienan talentua erakartzeko



100 kooperatiba autonomo eta independente baino gehiagok osatzen dute MONDRAGON, eta Euskadiko Lehen enpresa taldea eta Espainiako hamargarrena da. 5 kontinenteetan dago, eta 80.000 pertsonari baino gehiagori ematen die lana.

MONDRAGONek Debagoienarekin duen harremana eta konpromisoa estua da. MONDRAGON osatzen duten enpresa eta erakunde gehienak eskualdekoak dira. Prestakuntzarena eta talentua erakartzearena etengabeko erronka da, bai eta lehiakortasuna ziurtatzeko gakoetako bat ere.

+  
[www.mondragon-corporation.com](http://www.mondragon-corporation.com)



IKERLAN teknologia zentro liderra da ezagutzaren transferentziari eta enpresei balio lehiakorra gehitzeari dagokienez.

IKERLAN zentro dinamiko da, eta mundura irekia. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak egiaztatutako eragilea gara, eta lankideen sare handi bat daukagu, Europako zentro eta unibertsitate ospetsuek osatuta, ikerketa jarduerak eta ikertzaileak prestatzeko jarduerak egiteko.

+  
[www.ikerlan.es/](http://www.ikerlan.es/)



Mondragon Unibertsitatea Euskal Herrian errotutako unibertsitatea da, euskararekin eta euskal kulturarekin konpromiso handia duena, baina aldi berean, XXI. mendeko gizarteak eskatzen dituen aldaketei irekita dagoena.

Gure hezkuntza eredu hainbat baliotan oinarritzen da; besteak beste: berrikuntza, humanismoa, elkartasuna eta lankidetzak.

Gure hezkuntza eskaintzaren oinarria ikasketen orientazio praktikoa da, eta ematen diren ezagutzak baliagarriak dira lanbide jarduerak gauzatzeko.

+  
[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)



Berrikuntza eta Diseinu Estrategikorako Agentziak Bilbon, Donostian eta Madrilen dituzte egoitzak, eta eskarmentua dauka lurraldea garatzeko eragileen ekosistemak diseinatzen.

DOTen metodologia sortzaileak baliatzen ditugu ikuspegi komun bati lotutako lantalde askotarikoak eratzeko, ideiak sortzea eta garatzea sustatuz, harik eta produktu edo zerbitzu gisa abian jarri arte.

+  
[www.feeldot.com](http://www.feeldot.com)



## LANTALDE SUSTATZAILEA:

Sektore anitzeko lankidetzak publiko-pribatua,  
Debagoienan talentua erakartzeko



Gipuzkoa lurralde lehiakorra, adimentsua, orekatua eta sortzailea da, eta aberastasunaren sorkuntza iraunkorra, pertsonen ongizatea eta herritarren bizikidetzak bermatzen ditu. Lurralde horren eredu sozioekonomikoa industriaren sendotasunean oinarritzen da.

Eguneko testuinguruan, susperraldi ekonomikoa sendotzea, enpresen lehiakortasuna indartuz, lehen mailako helburu bihurtu da Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat.

+  
[www.gipuzkoa.eus](http://www.gipuzkoa.eus)

Fagor 8 kooperatibak osatutako industria taldea da, eta 10.000 pertsonari baino gehiagori ematen die lana munduan zehar; horietatik 5.000 Euskal Herriko gure lantegietan ari dira lanean.

Gure kooperatiba guztien egoitzak Debagoienan daude, eta ekoizpen lantegiak ditugu Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin. Fagor Taldeak Debagoieneko garapen sozioekonomikoarekin duen konpromisoa etengabea izan da historian zehar, eta, ilde horretan, eskualde hau lan egiteko eta bizitzeko leku erakargarri izatea da daukagun helburuetako bat.

+  
[www.fagor.com](http://www.fagor.com)

CIFP Miguel Altuna Lanbide Heziketako zentro publiko integratua da. Profesional kualifikatuak prestatzen ditugu, ikaslearen garapen pertsonalean oinarritutako talentua sortzen eta gidatzen duen prestakuntza dinamikoaren bidez. Lankidetzak metodologiak etengabe egokitzen ditugu trebetasun eta ezagutza eguneratuak eta aurreratuak eskuratzeko. Gizarte eragile gisa, gizartearekin eta enprekin ditugun konpromisoak betetzea dugu helburu, eskura ditugun baliabide guztiak erabiliz.

+  
[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

GARAIA Parke Teknologikoa ekintzaitza eta berrikuntza sistema da, topaketa espazio ezin hobe gaur egun bertan instalatuta dauden 54 organizazioentzako; enpresak, teknologia zentroak, unibertsitatea eta beste eragile batzuen 1.351 profesionalekin, nun horietako 718 (%53) I+G-ean egiten dute lan. Urtero PTGaraian 250 ekitaldi inguru egiten dira (Garaia Enpresa Digitala, Prestakuntza Pilulak, Enpresa Topaketak, Zientzia eta Teknologia Eguna, eta abar), 10.000 pertsona baino gehiago biltzen dituztenak eta sare hau Debagoieneko talentuaren garapen profesional, enpresarial, ekonomiko eta sozialerako aukera bihurtzen dutenak.


+  
[www.ptgaraia.eus](http://www.ptgaraia.eus)



*Zer lotu nahi dugu  
Debagoiena Talent  
Housearekin?*

## PROIEKTUAREN HELBURUAK:

Debagoiena Talent Housek lurraldearekin lotutako hainbat helburu ditu, non hainbat eragilek gogoeta egin eta ideiak zein baliabideak bilduko dituzten, narratiba berri bat aktibatzeko:




1

**SEKTORE ANITZEKO ALIANTZA  
PUBLIKO-PRIBATUA**  
Debagoienan talentua  
indartzeko eta atxikitzeko.



2

Talentuaren ibilbide eta  
esperientzien **NARRATIBA  
SENDO ETA KITZIKAGARRIA**  
**SORTZEA** Debagoienan  
(Place branding &  
experiencing).



3

**IKERKETA PARTE  
HATZAILEA** Debagoieneko  
"eragile eta talentuen"  
(profesionalak, ikertzaileak  
eta ikasleak) beharrak eta  
itxaropenak ulertzeko.



4

**AKTIBAZIO ESPARRUA**  
Lotura duten garapenak eta  
proposamenak aktibatzea.



5

**KONPONBIDEAK  
DESKRIBATZEA** (jarduerak,  
zerbitzuak, aliantzak,  
plataformak, touchpointak &  
ekipamenduak...) eta horien  
prototipoa zehaztea eta  
etorkizunean martxan jarri  
ahal izatea.






*Zer eragile dira  
beharrezkoak narratiba  
berria ukigarria izan  
dadin?*

## ZERIKUSIA DUTEN ERAGILEAK:

Narratiba berria abian jartzea posible izango da balio proposamena indartzeko gai diren eragileen lankidetzarekin eta esku hartzearekin. Horretarako, garapen prozesuan maila desberdineko bi talde sortuko dira:

**CORE TALDEA:** Proiektua sustatuko duen taldea. Ikuspegi orokorra izango du, eta emaitzetan eta ekimenak aktibatzen baliabideen bilaketan jarriko du arreta.

**HEDAPENeko TALDEA / OPEN INNOVATION:** Konponbideak ematen eta narratiba hainbat ikuspegitik transmititzen esku hartzen duen taldea.





*Zergatik da Debagoiena  
pertsonalki eta profesionalki  
hazteko lekua?*

## PROIEKTURAKO LAN ARLOAK:


Uste da eskualdera talentua erakartzeko hainbat lan plano behar direla, alderdi pertsonalak eta profesionalak barne hartzen dituztenak, bai eta banakako garapenera eta Debagoieneko kolektiboari berari zuzendutako balio proposamenak ere.





## LAN PROZESUA:

Agile eta Design Thinking metodologietan oinarritutako lan formatu bat proposatzen da, formatu parte hartzaile batean hainbat eragilek esku hartzeko eta proiektuan ezarritako erronka nagusiei erantzuteko. Fase bakoitzak dinamika eta baliozkotze batzuk proposatuko ditu, azkenerako, konponbide optimoei, merkaturatu aurretik, bideragarritasun azterketa bat egin ahal izateko.




### 1. FASEA: IKUSKATZEA

BISIOA, ALIATUAK ETA  
LEARNING POSITION




### 2. FASEA: ESPLORATZEA

LURRALDEAREN BEHARRAK ETA  
AUKERAK.  
GOGOETA ETA BATERAKO  
SORKUNTZA TALDEAK OSATZEA.



### 3. FASEA: SORTZEA


ZERBITZUEN KONPONBIDE  
PROTOTIPOAK DISEINATZEA



### 4. FASEA: AKTIBATZEA

INPLEMENTAZIOAREN  
BIDERAGARRITASUN  
AZTERKETA





DEBAGOIENA  
TALENT HOUSE

